



AUKERAKO HEZKUNTZAREN PROPOSAMEN DESBERDINEN AZTERKETA GORPUTZ ETA HEZKUNTZAREN ESPARRUAN

GRADU AMAIERAKO LANA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEA

EGILEA: Martxel Sagarzazu Larrauri

Tutorea: Javier Oscar Garay Plaza

IKASTURTEA 2014-2015

4.deialdia

AURKIBIDEA

1. TAULEN ZERRENDA.....	4
2. IRUDIEN ZERRENDA.....	5
3. SARRERA.....	6
4. JUSTIFIKAZIOA.....	8
5. AURREKARIAK.....	10
5.1. Berrikusketaren helburuak	
5.2. Artikuluaren bilaketa bibliografikoa	
a) Datu-baseak	
b) Hitz-gakoak	
c) Filtroa	
d) Informazioaren sailkapena	
e) Idazlana	
6. HELBURUAK.....	14
7. METODOLOGIA.....	15
8. MARKO TEORIKOA.....	19
A) Curriculumean oinarritutako metodologiak	
8.1. Igorle Eredua	
8.2. Eredu Teknologikoa	
8.3. Eskuz Eginiko Eredua	
8.4. Eredu Aurkitzaile Gidatua	
8.5. Eredu Eraikitzailea	
B) Aukerako Heziketa Fisikoa	
8.6. <i>Waldorf</i> metodoa	
8.7. <i>Montesori</i> metodoa	
8.8. <i>Kuman</i> metodoa	
8.9. <i>Doman</i> metodoa	
B) Faktore bereizgarriak	
1- Ikaste mota	
2- Ikaste kontrola	
3- Ikastearen norabidea	
4- Ikasteko taldekatzea	
5- Ikasteko eragin-trukeak	

- a) Ereduen sailkapena funtzioen arabera
- b) Mailaren araberako ereduaren sailkapena
- c) Ereduen sailkapena dituzten joeren arabera
- d) Ereduen sailkapena dituzten formen arabera

6- Ikasteko laguntza

9. PROPOSAMENA.....	43
10.ONDORIOAK.....	65
11.BIBLIOGRAFIA.....	66

1. TAULEN ZERRENDA

- 1 Taula. Datu baseen emaitzak
- 2 Taula. *Dialnet* gaztelaniazko emaitzak
- 3 Taula. *Dialnet* ingelesezko emaitzak
- 4 Taula. *e-Revistas* gaztelaniazko emaitzak
- 5 Taula. *ISI Web of knowledge* gaztelaniazko emaitzak
- 6 Taula. *ISI Web of knowdge* ingelesezko emaitzak
- 7 Taula. Igorle ereduaren adierazpen sintetikoa
- 8Taula. Ikaste mota sintetizatua
- 9 Taula. Taldekatze mota ezberdinak
- 10 Taula. Giza harreman sare ezberdinak
- 11 Taula. Igorle ereduaren faktore orokorrak
- 12 Taula. Igorle ereduaren faktore espezifikoak
- 13 Taula. Eredu Teknikoaren faktore orokorrak
- 14 Taula. Eredu Teknikoaren faktore espezifikoak
- 15 Taula. Eskuz Eginiko Ereduaren faktore orokorrak
- 16 Taula. Eskuz Eginiko Ereduaren faktore espezifikoak
- 17 Taula. Eredu Aurkitzailearen faktore orokorrak
- 18 Taula. Eredu Aurkitzailearen faktore espezifikoak
- 19 Taula. Eredu Eraikitzailearen faktore orokorrak
- 20 Taula. Eredu Eraikitzailearen faktore espezifikoak
- 21 Taula. *Waldorf* metodoaren faktore orokorrak
- 22 Taula. *Waldorf* metodoaren faktore espezifikoak
- 23 Taula. *Montessori* metodoaren faktore orokorrak
- 24 Taula. *Montessori* metodoaren faktore espezifikoak
- 25 Taula. *Doman* metodoaren faktore orokorrak
- 26 Taula. *Doman* metodoaren faktore espezifikoak

2. IRUDIEN ZERRENDA

- 1 Irudia. Informazioaren kalitatezko piramidea
- 2 Irudia. Irakurketa kritikoa
- 3 Irudia. + eta –
- 4 Irudia. Ikastearen norabideak sintetizatuak
- 5 Irudia. Ikaste motaren emaitzak
- 6 Irudia. Ikaste kontrolatuaren emaitzak
- 7 Irudia. Ikaste norabidearen emaitzak
- 8 Irudia. Funtzioaren araberako harremanen emaitzak
- 9 Irudia. Mailaren araberako harremanen emaitzak
- 10 Irudia. Ereduen araberako harremanen emaitzak
- 11 Irudia. Formaren araberako harremanen emaitzak
- 12 Irudia. Ikasteko laguntzaren araberako emaitzak

LABURPENA

Azken hamarkadan irakaskuntza eta jarduera fisikoaren arteko erlazioetan egindako ekarpenak azaleratzen ari dira. Heziketa Fisikoaren Espainiako panorama haratago joan nahi du metodologia ezberdinak baliatuz. Orregatik, Aukerako Heziketa Fisikoaren metodoen arteko bilaketa sistematiko bat behartzat jotzen da. Horretarako, aurrekariak bilatu dira eta egungo egoera aztertu eta definitu. Bukaeran emaitzen aldaera eta arrazonamenduekin amaitzeko. Aukerako Heziketa Fisikoak barneratzen dituen metodologiei buruzko hurbilketa eta ideia edo pentsamendu ezberdinen hausnarketa bat da.

Hitz gakoak: Aukerako Heziketa Fisikoa, Aukerako Hezkuntza Fisikoa, Gorputz Heziketa ez tradizionala eta Aukerako Heziketa metodologiak.

3. SARRERA

Denboraren zehar, eta xehetasun desberdinez, gizarte guztietan aldaketa sakonak eta iraupen handikoak nabari dira egitura desberdinetan, hala nola: ekonomiko, gizartean, kultur arloan, teknologiko eta politikoan. Hau guztiari soziologo askok modernitatea deitu izan diote. Azken urtetan, zenbait gertaera izan ondoren, bai eta modalitate eta joeren garapena kontuan izanda alderdi profesional askotan gauzak azkarregi doazelako susmoa gerta daiteke, ondorioz oso zaila egiten da etorkizuna iragartzea (Parrilla, 2007)

Egia esan, oraingo mendean gure hezkuntza sisteman egin diren berritzeek munduan bultzatzen ari diren hezkuntza eredua eskumenen bitartez erantzuten diete. Formazio eredu hau goratzen duten bi proposamen garrantzitsuenak (Díaz, Noell, Lladó eta del Valle Gómez, 2010) Europan sortu ziren, lehenengoz *Tuning* proiektua, Europar Batasunak bultzatua (EB) eta beranduago *DeSeCo* (Eskumenen Definizio eta Aukeraketa, 2000, 2005) Elkarketa eta Ekonomia Garapenaren Antolaketa Bultzatzen duena (OCDE)

Zientzien irakaskuntzaren orientazioan curriculumak betekizun berezia jokatu du, arlo honetan jakinarazten duten hainbat aipamen 2007-2008 ikasturtean LOE ezartzeak curriculumean aldaketa bat ekarri zuen oinarritzko eskumena sartuta egon behar zutelako. “Jakitetik” “egiten jakitera” pasatzen da (Gironés, 2014) Ezagupenaren oinarriak hainbat eskumenen bidez eraikitzen dira: hizkuntz komunikazioa, matematika eskumena, ezagupenaren eskumena eta mundu fisikoarekiko eragin-trukearekin, informazioaren trataera, ikasten ikasteko eskumena eta bestelakoak.

Une honetan, dudarik gabe, unibertsitatearen asaldura batean gaude gizartearen bi aldaketa nagusien bat egite izateagatik. Alde batetik Goi Mailako Heziketa Europar Gunearen bat egitea *Boloniako Hitzarmena* deitua; eta bestetik, gizarteak eta bere erakundeek egiten duten etengabeko indarra unibertsitatea egungo gizarteak era guztietako aldaketei aurre egiteko behar den erakundearen bihurtzeko. Unibertsitatearen hezkuntza elkartearen egoera honetaz geroz eta gehiago jabetzen da eta askoz ere jarrera irekiagoa izaten ari da bere gizarteak duen gogoeta bidean (del Valle Gálvez, 2006).

Eszenatoki honetan ebaluazioaren gaiak garrantzi berezia hartzen du (Pastor, Aguado, García, López, Badiola eta García, 2006) Gizabanakoak lortzen dituen eskumenak ebaluatzeko tresna estandarrak erabiltzen dira, bertan zenbait adierazgarri definitu behar dira hezkuntza sistema desberdinekin eratzeko eta horietako bakoitza bere buruarekin ere (Brunner eta Elacqua, 2004) Nahiz eta askotan entzun hierarkia bat ez dela finkatu nahi, egia esan, askotan informe horiek handitik txikira ordenatuta azaltzen dira, ikasleek lortutako emaitzen arabera, beraz lehia ezinbestekoa gertatzen da (Díaz, 2003) Ondorioz, kalitatea eskala batean dauden postuen arabera eztabaidatzen da.

Begien bistakoa da Heziketa Fisikoaren norabidea nabarmen aldatu dela aipatutako gertaera eta lehendik izandako beste gertaera batzuen eraginez. Lanaren helburu nagusia Heziketa Fisikoaren garapenean eragina izan ditzaketen joera profesional desberdinen faktore garrantzitsuen azterketa bat eskaintzea da. Era berean, gure esparruan dauden hutsune bibliografikoak osatzea eta ondorioz, Heziketa Fisikoaren curriculumean sakontze lana egitea ikerketaren norabide berriak ireki ahal izateko.

Sarrerarekin amaitzeko, azaldu behar da lan honen eraketarako motibazio iturri ezberdinez baliatu dela egilea. Motibazio pertsonala oso garrantzitsua izan bada, programa honen etorkizunerako erabilera praktikoa garrantzitsuagoa izan da. Eskaintako lana metodologia ezberdinen gida bat da, hau da, adituaren esperientzi, jakinduri maila eta testuinguruarekin konplimentatzea ezinbestekoa da. Horregatik malgutasuna eta kontzeptuen berriztatzea beharrezkoa da praktikara eramaterakoan.

4. JUSTIFIKAZIOA

Artikulu zientifikoaren helburua, ikerketen emaitzak, ideiak eta eztabaidak era argi eta fidagarri batean azaltzea da. Ondorioz esan dezakegu zientziaren mesedetan lan egiten duen metodo bat dela. Artikulu zientifikoak publikatzen duten informazioa aztertua eta eztabaidatua izaten da. Gainera, publikatua izateko protokolo zehatz eta konplexu bat gainditu behar dute informazio zientifikoa babesteko helburuarekin (Stufflebeam eta Shinkfield, 1988).

Hainbat metodo daude zientzia informazioa osatzerako orduan, hauetako bat, lanean erabilitako berrikuste sistematikoa izaten da. Berrikuste sistematikoa artikulu, aldizkari edota egile ezberdinek argitaratutako liburuetan oinarrituz, burutzen den ikerketa bat da. Bertan gai zehatz baten inguruan dauden ikerketa garrantzitsuenak identifikatzen eta emaitzak aztertzen laguntzen duen metodologia da. Informazioan oinarritzen den baliabidea denez, ezinbestekoa da informazioaren bilaketan pausu ezberdinak argi azaltzea, ondorioz etorkizunean frogatua edo konparatua ahal izateko baliagarria bihurtu izango delarik (Abela, 2002).

Egun, artikulu zientifikoaren eskaintzak eta eskariak nabarmen gora egin dute. Literatura zientifikoan aurkitutako artikuluak ezinbestekotzat suertatuz. Aritu eta ikerlarientzat, informazio guztia irakurtzea eta asimilatzea zeregin oso gogorra eta neketsua bihurtu da. Zeregin honi irtenbide errazago edota lana errazteko bidean, berrikuste sistematikoa baliabide bikaina daukagu. Izan ere, zenbait artikulu ezberdin bateratzen eta erakusten duten artikulu zientifiko bakarra da. Hala nola, arlo edo eremu zehatz batean azkeneko joerak, tendentziak, modak edota jakintza bideak barneratzeko eta eguneratzeko sistema ezin hobea bilakatuz.

Artikulu zientifikoek, beraien helburua hobeto burutzeko bidean, eboluzio garbia jasan izan dute. Lehen berrikuste artikuluak narrazio eta kualitatibotasunean oinarritzen ziren. Ondorioz, emaitzen kuantifikazio sinplea eskaintzen zuten gehienbat, ikerketen ondorioak positibo edo negatibotasunean sailkatuz. Kritika gogorrak eta askotarikoak jasan zituen berrikuste sistema honek. Ondorioz, berrikuste sistema ezberdinen sorreran lan egin zen (Meca eta Ausina, 2010):

- 1) Berrikuste deskriptiboa: Kontzeptu baliagarriak bermatzen duen berrikuste sistema da, non gehienbat etengabeko garapenean dagoen eremu bati buruz lan egiten den.
- 2) Berrikuste minimalista: Galdera konkretu bati erantzuten dion berrikuste ebaluatzailea.
- 3) Berrikuste sakona: Eremu osoari aplikatutako berrikuste mota.

Lan honetarako berrikuste sakonean oinarritu naiz, izan ere, Hezkuntza Fisikoko metodologia ezberdinen azterketara gehien egokitzen den berrikuste sistematikoa dela ematen du. Aipatzekoa da, aukerako Hezkuntza Fisikoa ere berrikusi eta aztertu egin direla. Eremu hau oso zabala da eta mugak oraindik ez daude oso ondo finkatuta, beraz, eremu osoari aplikatutako berrikuste mota aukeratu izan da.

Amaitzeko, aipatu beharra da, gaztelaniaz eta are gutxiago euskaraz, oso murrizta dela Hezkuntza Fisiko ezberdinen konparaketa (batez ere, aukerako hezkuntzak eskaintzen digun aukerak barne badaude) Horregatik oso garrantzitsua iruditzen zait lan honen sorrera eta etorkizunean oso baliagarria eta praktikoa bihurtuko delako esperoan burutu izan da gradu amaierako lan hau.

5. AURREKARIAK

Dokumentu bibliografikoa sortzeko, hainbat informazio iturri erabili dira, ahalik eta gaiari buruzko artikulua zientifikoaren portzentaje gehien aurkitzeko helburuarekin. Espainian Heziketa Fisikoaren barnean ematen diren aukerako heziketa arrakastatsuenak, metodologia erabilienak eta modelo hauen zuhaitz teorikoa osatzen laguntzen duten dokumentu eta taula guztiak hautatu ziren (Azorín eta Sánchez-Crespo, 1994). Berrikuste artikulua, testu zientifikoak oinarritzat hartzen dituzenez, beste era bateko artikulua zientifiko bezala sailka daiteke. Logikoa denez, jatorrizko artikuluekin antzekotasunak ditu, baina bere izaera eta ezaugarri bereziak mantenduz. Jarraian berrikuste artikuluen berezitasun nabarmenak aipatuko dira beste artikulua zientifikoekin alderatuta (Meca, 2010):

-Berrikuste artikulua

- a) Luzeagoak izan ohi dira, izan ere, berrikuste artikulua, testu zientifiko ezberdinez osatua dagoen errebisio batean oinarrituta daude.
- b) Metodo sailean: Bilaketa estrategia (bilaketa sistematikoa) eta artikulua ezberdinen aukeraketa irizpideak agertzen dira errebisioa berregiteko asmoz. Testu zientifikoetan oinarritzen direnez, oso garrantzitsuak dira atal hauek oinarri zientifikoaren sustatzeko helburua betetzeko.
- c) Emaizta eta eztabaida: Artikuluaren oinarrizko funtsak osatua. Bertan aurkitutako emaitzen ondorioak aztertzen dira eta hauen zergatia edo nolakotasuna azaltzen saiatzen da.

BILAKAERA


3.1. Berrikustearen helburuak definitu

Lehenengo fasean berrikuste bibliografikoaren helburuak finkatu dira. Justifikazioan azaldu dugun bezala, berrikuste sakona hautatutakoan baldintza batzuk bete behar dira. Horregatik, jarraian berrikuste bibliografikoaren helburuak ezarri ziren lanaren garapen egokia ziurtatzeko:

- 1) Gaiaren laburpen orokorra.
- 2) Gaiaren zuhaitz teorikoa identifikatu eta azaldu.
- 3) Marko teorikoan dauden metodologiaren ezaguera identifikatu eta azaldu.
- 4) Konparaketa burutzeko baliabideak identifikatu eta azaldu.
- 5) Gaiaren alderdi eztabaidagarrienak identifikatu eta azaldu.
- 6) Praktikotasunean burutzeko ebidentziak identifikatu eta azaldu.
- 7) Irakurlearen irakurketa esfortzua dinamizatu.
- 8) Etorbizuneko gaiak edo buru haustekak identifikatu eta azaldu.

3.2. Artikuluaren bilaketa bibliografikoa (Guerra, Muñoz eta Santos, 2003)

Zientzia literaturan, irakurketa munduan gertatzen den bezala, dokumentu eta informazio iturri ezberdinak daude. Lanean artikuluko zientifiko eta datu base ezberdinak erabili izan dira. Hala ere, artikuluko zientifikoek dakarten informazioa zuzena edo zeharkakoa izan daiteke. Horren arabera ondorengo piramidean informazio kalitatearen sailkapena egin da, aipatutako faktorean oinarrituz:



a) Datu baseak

Artikulu zientifikoak eskuragarri eta sailkatuak aurkitu ditzakegu datu baseetan. Ikertzaileek eta adituek interneten bidez aurkitu eta bereganatu ditzakete datu baseetan eskaintako informazio zientifiko guztia. Datu base hauen aukeraketa irizpideak ezberdinak izan dira. Ere ezberdinak biltzen zituen datu baseak aukeratu egin dituzte egileak. Ondorioz, ikuspegi nazionala, mundu mailako ikuspegi Iberoamerikarra eta mundu mailako ikuspegi orokorrak eskaintzen dituzten datu baseetan oinarritu da lana. Eskaintako lana burutzeko orduan erabilitako datu baseak ondorengoak izan dira:

Estatu mailan:

- a) *Dialnet*: Honako datu basea testu zientifikoan Espainiar produkzio garrantzitsuenetakoa da. Bertan 9.425 aldizkari zientifiko, 43.234 tesi eta guztira 4.663.659 dokumentu zientifiko aurki ditzakegu. Hau guztiarengatik, Espainiar ikuspegi zientifiko objektiboena iruditu zaio egileari.

Nazioarte mailan:

- a) *e-Revistas*: Sare Iberoamerikar garrantzitsuena daukagu ondorengo datu basea. Bertan, 1.432 aldizkari zientifiko barneratzen ditu eta 344.515 dokumentu zientifiko ezberdin bereganatzen du. Horretaz gain, 23 herrialdek baino gehiago parte hartzen dute eta Europa, nahiz Hegoamerikan kotsakratua da.
- b) *ISI Web of knowledge*: Mundu mailako datu baserik garrantzitsuenetakoa da, garrantzitsuena ez esateagatik. Bertan 5.900 aldizkari zientifiko barneratzen ditu 150 diziplina zientifiko ezberdinei buruz. Gainera, datu base ezberdinekin konektatua dago eta beraz guztira biltzen duen informazioa oso zabala eta sakona da.

b) Hitz gakoak

Berrikuste lana errepikatzeko asmoarekin datu base bakoitzean hitz gakoak ipini dira. Datu base bakoitzean aurkitutako datuekin koadro bat osatu da, non, aurkitutako artikuluko kopurua, urteen sailkapena eta ehunekoak metodologia atalaren barnean azaltzen dira. Hala ere, hiru hitz gako izan dira erabilitakoak. Gaztelaniaz eta ingeleraz erabilitakoak soilik aipatuko dira, izan ere, hautatutako artikuluko guztiak bi hizkuntza hauetan idatziak daude. Gaztelaniaz, *Educación Física Alternativa*, *Educación Física No Tradicional*, *Eneñanza Física Alternativa* eta ingeleraz ordea, *Alternative Physical Education*, *Non Traditional Physical Education*, *Schooling Physical Education*.

c) Filtroa

Lanaren helburuak irizpide izanda, artikuluen filtro bat eraiki eta aurrera eraman da. Gainera ingelesez eta gaztelaniaz idatzitako artikulukoak hautatu dira soilik (euskaraz idatzitako artikulukoak baliagarriak ez dira aurkitu). Horretaz gainera 2.000 urtetik aurrerako artikulukoak soilik hautatu egin dira, jakinda Espainia estatu mailan praktikara eramaten diren Aukerako Heziketa Fisikoko metodologia ezberdin garrantzitsuenak soilik kontuan izan direla. Horretaz gain, CASPe (2005) programan oinarrituta, irakurketa kritikoa burutzeko teknika erabilia izan da.

d) Informazioaren sailkapena

Informazioaren sailkapena era pertsonal batean burutu da, egilearen lana errazteko. Informazioa 3 mailatan eta heziketa metodologien arabera sailkatu da:

- 1) Informazio orokorra: Metodologia ezberdinen gainera hitz egiten dutenak.
- 2) Informazio zehatzagoa: Metodologian murgildurik heziketari buruz hitz egiten dutenak.
- 3) Bigarren mailakoarena baino are informazio zehatzagoa: Metodologian murgildurik Heziketa Fisikoari buruz hitz egiten dutenak.

e) Idazlana

Idazlanaren helburua aurkitutako eta sailkatutako informazioa era labur eta dinamiko batean azaltzea da. Egileak erabili duen sailkapen pertsonala argi azaltzen da lanean, hau da, informazio orokorretik zehatzera argitaratuz. Ondorioz, garapen arrazional eta argi batean murgildu daiteke irakurlea. Non, informazioa eta kontzeptu teknikoak amaieran aurkitzen ditugun, oinarri teoriko sendo bat eraiki ondoren. Amaitzeko azaldu behar da atal ezberdinen eskema aurkibidean azaldua dagoela.

6. HELBURUAK

Atal honetan ikerketaren metodologiaren oinarrien alderdiak azaltzen dira. Bestela esanda, lanaren helburu ezberdinak. Helburuak bi maila ezberdinetan sailka daitezke, alde batetik, helburu orokorrak eta bestetik helburu espezifikoak. Gure errebisio sistematikoa aurrera eramateko lehen pausua marko teoriko sendo eta sakon bat burutzea izan da. Ondorioz, hasieran ikerketa deskribatzaile bat egin da irakurleari kontzeptu eta teoria ezberdinekin mamituz. Hau guztia kontuan izanda jarraian helburu ezberdinak azalduko dira:

Helburu orokorrak

- a) Burutu den errebisio sistematikoaren helbururik garrantzitsuena Aukerako Hezkuntzaren proposamen ezberdinen azterketa burutzea izan da, heziketa fisikoko esparruaren barnean. Ondorioz, praktikara eramaten diren Aukerako Hezkuntza Fisikoaren metodologia garrantzitsuenak azaldu dira.
- b) Metodologia ezberdinek dituzten alderdiak aztertu eta faktoreen alderatze prozesu bat burutu da, ondorioz errebisio sistematikoan murgilduz.

Helburu espezifikoak

- a) Oinarritzat, Espainiar estatuan praktikara eramaten diren metodologia garrantzitsuenak kontuan hartu egin dira. Hauen artean, *Waldorf*, *Montessori*, *Kumon* eta *Doman* metodoekin mugatzea erabaki izan da. Aukerako Heziketa Fisikoko metodologia ezberdinen errebisio sistematiko baten atalak errespetatu eta burutu dira:
 - 1) Helburuak
 - 2) Bilaketa bibliografikoa: Iturri dokumentalak, datu-baseen aukeraketa prozesua, bilaketa estrategikoa eta errebisio irizpideak.
 - 3) Irakurketa kritikoa
 - 4) Datu-antolaketa eta idazlanean azalera.
- b) Oinarri gehigarri bezala curriculumean oinarritzen diren metodo esanguratsuen aipamena burutu da. Aukerako Hezkuntza Fisikoko metodologiekin ezberdintasunak aurkitzeko esperantzaz. Faktore ezberdinak identifikatu dira eta hurrengo sailkapenean kokatu dira: 1) Ikaste mota; 2) Ikaste kontrola; 3) Ikastearen norabidea; 4) Ikasteko taldekatzea; 5) Ikasteko eragin-trukeak; 6) Ikasteko laguntza.

7. METODOLOGIA

Goian azaldu den bezala hiru datu base erabili dira bilaketa bibliografikoa burutzerako garaian:

Estatu mailan:

1) *Dialnet*.


Nazioarte mailan:

2) *e-Revistas*.

3) *ISI Web of knowledge*.

Aurkitu diren artikulua guztietatik gaztelaniaz eta ingelesez idatzitakoak soilik hautatu dira. Ondoren hurrengo artikuluek jarraian azalduko fitroa gainditu izan dute. 2 Irudian irakurketa kritikoaren aldiak aipatzen dira.

2 Irudia. Irakurketa kritikoa



Gehigarri bezala 2.000 urtetik aurrerako artikulua hautatu egin dira, jakinda soilik Espainia estatuan praktikara eramaten diren Aukerako Heziketa Fisikoko metodologia garrantzitsuenetan oinarritu dela lana. Aipatzekoa da guztira 57 artikulua aukeratuak izan direla, jakinda, horietatik 22 ingelesez idatzitakoak direla eta 35 gaztelaniaz. Jarraian bilaketaren bukaerako emaitzak azaltzen dira.

1 Taula. Datu baseen emaitzak

Datu baseak	Bereganatutako artikulua	Hizkuntza Gaztelaniaz edo Ingelesez	Datu base bakoitzaren ehunekoak	Ehunekoak guztira
<i>Dialnet</i>	22	G 19 I 3	86,4 13,6	38,6
<i>e-Revistas</i>	7	G 7 I 0	100 0	12,3
<i>ISI Web of knowledge</i>	28	G 9 I 19	32,1 67,9	49,1
Guztira	57	G 35 I 22	61,4 38,6	100

Dialnet base datuetatik: Gaztelaniaz burututako bilaketa

2 Taula. Dialnet gaztelaniazko emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Ehunekoa
<i>Educación Física Alternativa</i>	11	2001→1 2002→1 2003→1 2004→3 2006→1 2010→1 2012→2 2013→1	50
<i>Educación Física No Tradicional</i>	2	2008→1 2009→1	9
<i>Enseñanza Física Alternativa</i>	6	2000→1 2003→2 2006→1 2008→1 2014→1	41

Dialnet base datuetatik: Ingelesez burututako bilaketa

3 Taula. Dialnet ingelesezko emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Ehunekoa
<i>Alternative Physical Education</i>	2	2000→1 2007→1	66,7
<i>Non Traditional Physical Education</i>	0	0	0
<i>Schooling Physical Education</i>	1	2012→1	33,3

e-Revistas base datuetatik: Gaztelaniaz burututako bilaketa

4 Taula. e-Ravistas gaztelaniazko emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Ehunekoa
<i>Educación Física Alternativa</i>	4	2011→3 2014→1	57,1
<i>Educación Física No Tradicional</i>	1	2002→1	14,3
<i>Enseñanza Física Alternativa</i>	2	2006→1 2010→1	28,6

ISI Web of knowledge base datuetatik: Gaztelaniaz burututako bilaketa

5 Taula. ISI Web of knowledge gaztelaniazko emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Ehunekoa
<i>Educación Física Alternativa</i>	5	2006→1 2013→4	55,5
<i>Educación Física No Tradicional</i>	1	2010→1	11,1
<i>Enseñanza Física Alternativa</i>	3	2014→1 2015→2	33,4

ISI Web of knowledge base datuetatik: Ingelesez burututako bilaketa

6 Taula. ISI Web of knowledge ingelesezko emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Ehunekoa
<i>Alternative Physical Education</i>	12	2001→3 2003→5 2006→3 2013→1	63,1
<i>Non Traditional Physical Education</i>	3	2002→2 2005→1	15,8
<i>Schooling Physical Education</i>	4	2008→1 2009→2 2013→1	21,1

8. MARKO TEORIKOA

Pertsonen modu desberdinetan hauteman eta jasotzen dute ezaguera, modu desberdinetan dituzte ideiak eta modu desberdinean pentsatzen dute eta zer esanik ez, bere jokaerari buruz. Egile desberdinek baieztatzen dute pertsonen nahiago izaten dituztela baliabide kognitibo batzuk besteak baino, informazio berriei esanahia bilatzeko (Barker, Quennerstedt eta Annerstedt, 2013) adibidez, kontzeptu berria ikasten denean ikasle batzuk alderdi logikoetan murgiltzen dira. Batzuk independenteagoak dira eta bakarrik ikasi nahi izaten dute, beste batzuk berriz nahiago dute ikaskideekin ikasi edo irakasleengandik gertu. Ikasle batzuek nahiago dute irakurtzea edo teoriako klaseetara joatea eta beste batzuk aldiz jarduera praktikoak gogokoak izaten dituzte (Baena-Extremera, Granero-Gallegos, Perez-Quero, Bracho-Amador eta Sanchez-Fuentes, 2013)

Ikaste-irakaste prozesuaren garapenak dakar erantzunkidetasun bikoitza. Alde batetik, irakasleak komunikatzaile ona izan behar du eta jakin behar du klaseak ondo ematen, materiala sortu behar du erakutsi nahi duena modu egokian egin ahal izateko, eta jarduera aproposak proposatu (Coe, Pivarnik, Womack, Reeves eta Malina, 2006) Baina horretarako ikasleen ikaste prozesurako egokitu behar da; jakin behar du nola ikasten duten bere ikasleek eta zeintzuk diren baldintza egokienak (Izquierdo, 2003) Beste aldetik, ikasleak baldintza egokian egon behar du bere formaziorako behar dituen zenbait faktore martxan jartzeko: motibazioa, saiakera, gaitasuna, adimena et.

Komunikazio orok eduki alderdi bat dauka helarazteko ikaste-irakaste prozesuaren oinarritzat hartzen dena -informazioa helarazi- eta kezka guztiak jasotzen ditu truke hori hobetzeko baliabideak bilatzen dituelako (Dorato eta Villa, 2013) Baina era berean beste alderdi batzuk aurkitzen ditugu erlazio dutenak eta garrantzi handia ikaste prozesuan, nahiz eta zenbaitetan baztertuta mantenduak izan (Cantwell, Archer eta Bourke, 2001) Aurrez aurreko eskoletan pertsonen arteko komunikazioa igorle eta hartzaile desberdinen artean egiten da eta hori izaten da hain zuzen prozesu didaktikoaren gakoa. Hau guztiagatik alderdi honen azterketa egitearen beharra nabaria da, ahalik eta hobetzeko asmoz. Laburbilduz, ikaste lerro desberdinetarako ikuspegia irekia izaten saiatuz. Jarraian curriculumean oinarritzen diren ikuspegi ezberdin garrantzitsuenak edo zabalduenak azalduko dira.

A) Curriculumean oinarritutako metodologiak

6.1. Igorle ereduak (Huber, 2008)

Jarraian Igorle ereduaren azterketa teorikoa burutu izan da. Horretarako lehenik eta behien era orokor batean ereduaren gorpuzkera osatzen duten faktoreak aipatu egin dira eta jarraian Heziketa Fisikoan praktikara eramateko beharrezko oinarriak deskribatuz:

- 1) Helburuak: Maila gorakoek ezarrita edota diseinu curriculumaren teknikariak.
- 2) Programazioa: Ezagutza helburuak bezalako edukietan oinarrituta eta programetan aipatuta arloaren banaketaren arabera.

- 3) Metodologia: Irakaspen eran, azalpen eran eta erakusle eran.
- 4) Antolaketa: Ikasle talde bat bakarra.
- 5) Komunikazioa: Ahozko eta idatzizko azalpena. Irakaslearen irakaspen eskolak edo klaseak.
- 6) Erabilitako baliabideak: Arbela, bideo eta teknologia digitalak.
- 7) Dokumentazioa: Testu liburua eta apunteak.
- 8) Jarduerak eta esperientziak:
 - a. Teoria aplikatzeko ariketak, hainbat motatako ebazpena.
 - b. Esperimentazio zatiaren falta izan daiteke. Gogoeta bidearen laguntza emateko esperientziak ilustrazio moduan eta izaera teknikoa duen ikasketa.

Metodo hau ikaslearen ikaste prozesuaren etekin azkarra lortzeko beharrarengatik zehaztuta dator. Irakasleak ikasleari proposatutako arazo edo buruketa baten emaitza ematen dio, ariketa nola egin behar duen zehaztuta, hau da, osatutako eredu bat emanez. Metodo honen erabilerak mugimenduzko lanen edo motrizitatezko lanen gauzatze prozesuan eragin zuzena du (Beneito, Ferri, Luisa Molto eta Uriel, 2001).

1.- Ereduaren aurkezpena

Metodo honen lehenengo urratsa ikasleak barneratu behar duen lanaren informazioa aurkeztea da. Aldi honetan, irakasleak bi alderdi kontuan izango ditu:

Bat, hutsegite aukerak kontuan eduki. Horretarako irakaskizunak era desberdinei ekin dizkieke (Fernández eta Guzmán, 2012):

- a) Irakaskizuna hutsegiterik gabe. Irakaslea saiatuko da hutsegite aukerak ahalik eta gehien gutxitzen, ikasleak helburu progresibo eta errazak lortu ahal izateko ariketa egituratuz. Adibide onena Sistema Konduktista dugu. Urrats bakoitzak zailtasun txiki bat du eta progresiboki zailtzen joango da, ikasleak maila bakoitza gainditzeko ahalmena ziurtatuz.
- b) Hutsegitea kontuan izaten duen irakaskizuna. Irakasleak kontuan izaten ditu hutsegite aukerak, horregatik banakako desberdintasunak sortzen dira. Hemen planteatuko dira aukerazko atalak dituzten irakasbide desberdinak, aurrez ikusitako bidera eramango dutenak. Eredu honen adibiderik onena “*Adarkadura jauziaren bidez*” (Ramificación por salto) da. Ez du kontuan izaten hutsegite mota, baina progresioak onartzen ditu.

Beste alderdia, praktikatara estrategia desberdinak kontuan izatea da. Irakaskuntzarako ereduaren planteamendua estrategia orokor edo analitiko baten bidez egin daiteke. Bata edo bestea aukeratuko da ariketaren zailtasunaren arabera edo antolaketaren mailaren arabera (goi mailako antolaketari ariketak oso egituratuak direnean esaten zaio, eta behe mailakoari ariketa ez egonkorrak eta egokitze lana onartzen dituen esaten zaio). Oro har, hauxe baieztatu dezakegu modu sintetiko edo sinple batean (Pastor, 2000).

7 Taula. Igorle ereduaren adierazpen sintetikoa

Igorle ereduaren adierazpen sintetikoa	
Orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> • Nahasgabea, garbia • Arretaren erakarritasuna • Benetako egoeraren aldaketa izanda
Analitikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Progresiboak • Sekuentzialak

2.- Ereduaren Egokitze Mailakatuta (Powell, 2003).

Behin ereduak aurkeztuz gero, ikasleak jarraitu behar du. Irakasleak informazioa eta behar duen denbora eskaini beharko dizkio eta, era berean, ikaslearen barneratze maila eta interpretazio gaitasunari erreparatu beharko die. Ereduaren jarraipenean ikasleak gutxitu beharko ditu egin nahi duena eta egiten ari denaren arteko aldeak, baita egin dezakeenarena ere.

Hau egin daiteke giza gorputzaren *feedback* mekanismoei esker eta, era berean, hauen bidez, egin denaren eta egiten ari denaren informazioa jasotzen da. Hemendik aurrera aurrez ikusita eta lortutakoaren desberdintasunak zehaztu daitezke. Bi *feedback* era daude, alde batetik barrukoa edo berezkoa eta bestetik kanpukoa.

Eredu guztiak bezalaxe bere hutsuneak edo ahuleziak ditu. Ahuleziarik garrantzitsuenak bi multzotan sailkatu izan dira. Gainera ereduaren egokitzeak honako ahulezi hauek potentziaztea bultzatu dezake. Jarraian ekar dezakeen ahuleziak deskribatzen dira:

- A. Ikasleak ez izatea ezer zuzentzeko beharra. Egindakoa eta aurkeztutakoa egokitzen dira.
- B. Ikasleak zerbait zuzentzeko behar izatea. Kasu honetan irakasleak erakutsi beharko dio ikasleari, beharrezkoa den kasuetan, edota informazio osagarriak emango dizkio, ikasleak ondo egiten duena indartzeko eta errepikatutako informazioa baztertzeko.

6.2. Eredu teknologikoa (Ruiz, 2011)

Jarraian Eredu Teknologikoaren azterketa teorikoa burutu izan da. Horretarako lehenik eta behien era orokor batean ereduaren gorpuzkera osatzen duten faktoreak aipatu egin dira eta jarraian Heziketa Fisikoan praktikara eramateko beharrezko oinarriak deskribatuz:

- 1) Helburuak: Adituen lana, zenbait mailetan, oso mugatua eta zehaztua.
- 2) Programazioa: Berriazko eta amaierako helburuetan oinarrituta. Ezagupen eta gaitasunak lortzeko zuzenduta, diziplinaren logika eta jarraibideen arabera.
- 3) Metodologia: Irakasle moduan, azalpen eran eta sokratikoa.
- 4) Antolaketa: Ikasle talde bat bakarra.
- 5) Komunikazioa: Askotarikoa (ahozkoa, audiobisuala, idatzizko prentsa baina irakasleak gidatuta, komunikazio baliabideak) Irakasle eskola nagusia.
- 6) Erabilitako baliabideak: Arbela, bideoak, fitxak, ordenagailua, arloaren tresna bereziak.
- 7) Dokumentazioa: Fitxak edo oso programatutako gidak bai irakasle zein ikasleentzat. Testu liburua edo egokitutako apunteak.
- 8) Jarduera eta esperientziak:
 - a. Teoria aplikatzeko ariketen ebazpena.
 - b. Laborategi praktikak teoriaren zenbait egoera frogatzeko.
 - c. Egituratutako praktikak gidoi deskriptiboetan azalduta.

TIC izenekoaren aurrerapena iritsi da ere Heziketa Fisikoa (Ibáñez, 2004), Jarduera Fisikoa eta Kirol arloetara. Horregatik aurki ditzakegu hainbat programa kirolariei neurketak eta kalkuluak egin ahal izateko, kirol diziplina (jakintza adar) desberdinetarako material didaktikoak egiteko (baloiak, uniformeak eta abar.) kirol eszenatokia (estadioak, pista sintetikoak eta bestelakoak) beste hainbat aurrerapenen artean.

Heziketa Fisikoaren ezagueraren barruan esperientziek eramaten gaituzte irakaslearen aukerak erraztera komunikazioan, interakzioan, elkarrekin eraikitze prozesuan, informazioa lortzerakoan eta, gaur egun, Heziketa Fisikoko elkarte akademikoetan badago joera baliabide birtualak erabiltzeko.

Heziketa Fisikoaren prestakuntzarako curriculum Gida “multimedial” sistema bat da, arloaren informazioa eta komunikaziorako teknika berria bezala ulertuta, eta horrela aurkezten zaio Oinarrizko Heziketa eta Heziketa Fisikoko irakasleriari. Sistema hori hainbat tresna teknologikoen bidez osatuta dago (CD-ROM, *chat*-en bidezko elkarrizketak, foroak, helbide elektronikoa, bideoak)

Zuzenduta dago arlo horretako irakasleak gaurkotzeko eta beraien prestakuntzarako. “Teleologiko” zentzuan proposatzen da Gida hori, auto-prestakuntzarako eta prestakuntza interaktiborako, beti ere ezagueren elkartrukea indartuz eta baita esperientziena ere; gogoeta bitartez ezaguera berriak eraikitzeko eta testuinguru desberdinetan aplikatu ahal izateko. Ezaguera horiek kontuan izango dute alde batetik, lanbidearen eta arloaren orokortasuna, eta bestetik, komunitate desberdinen xehetasun kulturalak.

Sistemaren proposameneko hasieran lanbide eta arloaren oinarritzko elementuak aurkezten dira. Helburuak, oinarri legalak, oinarri epistemologikoak, heziketa metodoak eta ebaluazio irizpideak, programaziorako ildo nagusiak, eta baita ere kontzeptuzko elementuak behar bereziak dituzten haurrentzat Heziketa Fisikoaren trataeran.

Unitate Didaktikoen curriculum egitura Gidak duen beste laguntza mota bat da. Hau multzoka antolatuta azaltzen da ondorengo moduan (Carrizosa, 2002): Haur Hezkuntza, Lehenengo-Bigarren, Hirugarren, Laugarren-Bosgarren, Seigarren-Zazpigarren eta Zortzigarren-Bederatzigarren. Irakasleak egitura horren bitartez hainbat unitate edo saio eraiki dezake, bere erakundearen testuingurua abiapuntuz hartuta.

Kontuan izan behar da aldaketa prozesu bat dela, non denek eta bakoitzak pentsatzeko eta jarduteko modu berriek ikasi behar dituzten. Elkarren arteko jardura gela eta ikastetxea hobetu ahal izateko; ideologi aldaketa zenbait balore eta gauzak egiteko era desberdinez; aldaketa kulturala egitura aldaketa baino urrutirago doana eta pertsonen prozesuak kontuan hartzen duena (Bamber eta Tett, 2001). Honek hauxe pentsatzera garamatza: *hobekuntza bizimodu era bat bihurtuko da erakunde bertan eta bertatik berritze proposamenak sortuko dira.*

6.3. Eskuz Eginiko Eredua (Monachesi, 2010)

Jarraian Eskuz Eginiko Ereduaren azterketa teorikoa burutu izan da. Horretarako lehenik eta behien era orokor batean ereduaren gorpuzkera osatzen duten faktoreak aipatu egin dira eta jarraian Heziketa Fisikoan praktikara eramateko beharrezko oinarriak deskribatuz:

- 1) Helburuak: Testuinguruaren arabera mugatuta eta berekin inplizitua dakartena. Ez daude zereginaren arabera kontrolatuta.
- 2) Programazioa: Irakaslearen eguneroko praktikan oinarrituta, benetako helburuak zehaztu gabe. Irakaslearen metodologiaren bidez gidatuta eta arloaren edukien bidez. Diziplina zehatza edo diziplina anitza izateko joera izanda.
- 3) Metodologia: Aktiboa, sokratikoa, irakasle eran. Irakaslearen metodologiaren bidez gidatuta.
- 4) Antolaketa: Ikasle talde bat; tarteka talde txikiak.
- 5) Komunikazioa: Interaktiboa eta berezkoa.

- 6) Erabilitako baliabideak: Malgutasuna eta askotarikoa. Jatorri desberdinetako materiala ezarritako lan ildoan egokituta.
- 7) Dokumentazioa: Liburuak, apunteak, gidaliburuak eta askotariko dokumentuak bai irakasleak zein ikasleak ekarritakoak. Ikaslearentzat lan koadernoan lanerako tresna bezala.
- 8) Jarduerak eta esperientziak:
 - a. Ariketak eta buruketak ebazteko ikuspegia.
 - b. Irakaslearen azalpenak eta esperientziak tartekatu, irakasleak gidatuta eta enpirista ikuspuntuarekin.

Eredu hau dator betiko Lanbide Heziketaren ereduaren antzarengatik. Eredua finkatzen da eskulan ikastun irudian. Lanbide irakaskuntzaren alderdiak erabil daitezke irakaskuntza kognitiboan. Irakaskuntzak maisutasuna lortzeko auto-kontrola eta auto-zuzenketa trebetasunak izan behar ditu, eta era berean barneratu beharko ditu bai trebetasunak zein kontzeptuzko ezaguera. Barneratze prozesu honetan oso garrantzitsuak eta ezinbestekoak dira ondorengo elementuak (Mosston eta Ashworth, 2002):

- 1- Behaketa: Jarduera eredugarrien aurkezpena *modeling* Ikastunak behin eta berriro irakaslea behatzen du, irakasleak aldi berean trebetasun batean arituko da erraz ikasteko moduan. Ikasleak ikasi eta eraiki dezake lana gauzatzeko behar duen eredu.

Esparru kognitiboan kanporatu behar dira prozesu eta jarduera kognitiboak, gehienetan barrukoak izaten baitira; batez ere, "heuristikoak" diren prozesuak eta kontrolekoak, horien bitartez adituek oinarritzko ezaguera erabiltzen dute, bai kontzeptu mailan bai prozedurazkoan ere.

- 2- Gogoeta: Praktika gidatua *coaching* Ikastuna saiatuko da prozesuak burutzen, gidaren bidez eta irakaslearen laguntzaz. Irakasleak ikaslea behatzen du ariketa bat egiten ari den bitartean eta laguntza eskainiko dio edo beste lanaren bat, egoeraren arabera. Sendotze honen helburua ikaslearen ekintza ahalik eta irakaslearen berdintsuena izatea da. Laguntzak berariazko gertaerekin lotura izaten du edo ikaslea arazoak izaten dituenean lanaren garrantzitsuena egiten saiatzen denean.

Lan egoki bat eskaintzeko trebetasun maila neurtu behar da, eta hau ikastuna lana egiten duenean ikusten da. Aldi honetan elementu berri bat kontuan izan behar dugu: Egitura *scaffolding* hitz honen esanahia irakasleak ikasleari, lan bat egiterakoan, ematen dion laguntza da.

Laguntza mota hau beharrezkoa da ikastunak lan bat burutzeko. Laguntza iradokizun bat izan daiteke, oroitzen bat edo zerbaiten materiala (adibidez, instrukzio fitxa bat). Egitura ere izan daiteke ahalegin bat elkarren arteko irtenbideak aurkitzeko (irakasle-ikasle) eta honen helburua ikaslea lanaren ahalik eta lehen erantzule bihurtzea izango da.

- 3- Ikaste prozesua garatzen den testuinguru soziala (gizarte ingurua): Zenbat eta ikasitakoa oinarrizko trebetasunak menderatzen joan orduan eta irakaslearen laguntza txikiagoa izango da. Une honetan iradokizun gutxi eskainiko dio ikasleari, honek praktikatzen duen bitartean eta lana hobetzen duen bitartean, benetako trebetasuna lortu arte. Irakasleak ikastunari erakutsiko dio auto-gogoeta eta zuzenketa garatzen. Ereduak baditu ere teknika batzuk auto-zuzenketa eta auto-kontrola *monitoring* indartzeko.

6.4. Eredu Aurkitzaile Gidatua (de Mora, Cantero, Cantero eta Triviño, 2009)

Jarraian Eredu Aurkitzaile Gidatuaren azterketa teorikoa burutu izan da. Horretarako lehenik eta behien era orokor batean ereduaren gorpuzkera osatzen duten faktoreak aipatu egin dira eta jarraian Heziketa Fisikoan praktikara eramateko beharrezko oinarriak deskribatuz:

- 1) Helburuak: Ikasleen interesetan nabarmenduak.
- 2) Programazioa: Iraupen luzeko ikerketa txikietan oinarrituta. Edukiei eta arloari arreta eskasa.
- 3) Metodologia: Aurkikuntza askearen bidezko ikerketa proiektuen metodoa edo interesen guneak enpirista edota induktista izatera dutenak.
- 4) Antolaketa: Bakarka edo talde txikian.
- 5) Komunikazioa: Ikasleen arteko komunikazioa lehentasunezkoa da.
- 6) Erabilitako baliabideak: Ikerketa lanerako egokitutako materiala.
- 7) Dokumentazioa: Dokumentazio orokorra eskura izatea ikasle guztientzat.
- 8) Jarduerak eta esperientziak: Zientziaren aurkikuntzak berregiteko egokiak diren jarduerak ikasleari eskaini eta ezaguera berreraikitzeke ere, irakaslearen laguntza eta adorea izanda (gidarik izan gabe).

Irakaskuntza ereduaren artean aurkikuntza gidatua da ikaslea kognitiboki inplikatzeko duena, beraz bere motrizitatean aurrerapauso bat emango da. Eredu honen jatorrian ikasle eta irakaslearen arteko harreman berezi bat gertatzen da. Irakasleak buruketa edo arazo bat planteatzen du ikasleak ebazteko edo konpontzeko. Irakaslea erantzunaren zain egongo da parte hartu gabe, beharrezko kasuetan izan ezik, eta bakarrik iradokizunak emateko; erantzuna inoiz ez, eta ikasleak erantzuten duenean indartuko du.

Irakasleek urrats batzuk emango dituzte emaitza eman baino lehen, ikasleek definizioa ondo ulertzeko. Urratsak honako hauek dira (Cardozo, Andino, Beatriz, Esquivel eta Espíndola, 2008):

1. Edukiaren aukeraketa. Ondoren jarraituko den segida zehaztu.
2. Urrats bakoitzaren oinarria aurreko erantzuna izango da, horregatik segidaren puntu bakoitza kontu handiz aztertuko dugu. Horretarako ikasleek egin ditzaketen erantzunez pentsatuko dugu eta erantzun bakarreko galdera aukeratuko dugu.
3. Erantzun bat baino gehiago azaltzen denean beste urrats bat eskaintzen saiatuko gara, erantzun bakar bat izateko.
4. Eragingarri batetik (galdera) erantzun batera (keinu bat, adibidez) bitarteko prozesu bat ematen da gure aldetik eta egin dugun galderaren barruan ulertzen dugu.
5. Bilatutako erantzun baten aurrean, *feedback* izeneko bat eskainiko dugu: “bai” simple bat edo “oso ondo”.
6. Eredu honetan irakasleak ez du inoiz erantzuna esango, baizik eta ikaslearengandik izan arte itxoingo du.
7. Onartze giroa mantenduko dugu eta baita pazientzia giroa ere, erantzun egokiak sortzeko.
8. Erantzuna zuzena ez denean galdera errepikatuko dugu. Espero duguna lortzen badugu hurrengoarekin jarraituko dugu; hau ez bada gertatzen galdera errazago bat planteatuko dugu.

6.5. Eredu Eraikitzailea (Joyce, Weil eta Calhoun, 2002)

Jarraian Eredu Eraikitzailearen azterketa teorikoa burutu izan da. Horretarako lehenik eta behien era orokor batean ereduaren gorpuzkera osatzen duten faktoreak aipatu egin dira eta jarraian Heziketa Fisikoan praktikara eramateko beharrezko oinarriak deskribatuz:

- 1) Helburuak: Ikasleen alde aurreko ideietan oinarritutakoak. Ikasleekin eztabaidatutako kontratu baten ondorioz eta helburutzat prozedurak, gaitasunak, jarrerak eta ezaguerak dituzte.
- 2) Programazioa: Curriculumaren antolaketa ireki batean oinarrituta, etengabe eraikitzen eta egiaztatzen ari den lanaren hipotesi moduan. Diziplina anitza, integraziorako joera.

- 3) Metodologia: Ikerketaren bidezko arazoaren ebazpena. Jardunean aktibo gidatutako aurkikuntzaren bidez. Prozesuei lehentasuna: nolakotasunari gehiago erantzuten zaio zergatiari baino.
- 4) Antolaketa: Talde aldakorrak eta txikiak denen adostasunarekin osatuta.
- 5) Komunikazioa: Irakasleak zuzenduta baina ikasleekiko interakzioaren bidez aldatuta. Ikasleen arteko harremana oso garrantzitsua da.
- 6) Erabilitako baliabideak: Material malgua dituzten lekuak eta aukeraketa irekia.
- 7) Dokumentazioa: Gelako liburutegia (hainbat liburu). Ikaslearen lan koaderno edo norberaren fitxategia.
- 8) Jarduerak eta esperientziak:
 - a. Arazo (buruketa) irekien planteamendua, nahiz eta ebazpenik ez izan.
 - b. Irakasleak bidalitako jarduera eta esperientziak, lanaren gaiarekin zerikusia dutenak. Ikasleek diseinua aukeratzen dute edota beraiek egiten dute.

Ikuspegi honetan abiapuntuaren oinarria hauxe da: ez daude “erabateko esanahiak”, gizabanakotik at, baizik eta esanahiak banakako eta gizarteko eraikuntzak dira, denbora eta leku zehatzetan ulertuta (Dosil, Lázaro, Fernandes eta Raposo, 2004). Ezaguera sortzen da arazo edo kontu garrantzitsuetan, eta erkatzen (parekatzen) ditugunean pertsonen eta komunitateen faktore esanguratsuak (sinesmenak, teoria pertsonalak, interesak) eta kanpoko faktore eta eraginak (beste teoria pertsonalak, beste interesak, beste esperientziak). Horrela, eskolan, testuinguru mugatua eta bere historia duena ulertuta, sortzen da bertan osatutako eta garatutako ezagueraren eraikuntza: Eskolako ezaguera.

Ezaguera eraikitzailean oinarritzen den korrante pedagogiko bat da. Bere ustez behar beharrezkoa da ikasleari tresnak ematea arazo baten aurrean bere baliabideak eraikitze sortutako egoera era egokian konpontzeko (irtenbide bat aurkitzeko) Honen ondorioz ikaslearen ideiak aldatuko dira eta ikasten jarraituko du.

Eraikitzailean irakaste prozesua erabat dinamikoa da, non ikasleak parte hartzen du eta ezaguera benetako eraikin bat bihurtzen da ikasten ari den pertsonarengan. Eraikitzaile pedagogian erabiltzen da ekintzetarako zuzenduta dagoen irakaskuntzaren kontzeptu didaktiko bat bezala. Horregatik, Hezkuntza Fisikoa ulertuko dugu jarduera kooperatiboa, jolaserako eta parte-hartzaile moduan (Callado, Aranda eta Pastor, 2014).

Gizakiaren garapen “ontogenetikoan”, eta berak duen harremana ezagutzen ez duen inguruarekin, goi mailako giza mugimendua nabarmentzen da kooperatiboa, jolaserako eta parte-hartzailearen adibide gisa, hau da, jolasa, giza dinamikaren oinarritzeko formak haziz (handituz) eta konbinatuz. Garapen horren lehenengo urratsetan, jolasak dauka leku garrantzitsua eta horrela jarraituko du izaten haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan ere (Monge, 2011).

Heziketa Fisiko Eraikitzailea lantzeko beste tresna erabilgarri bat “Egite higiarazle zirkuitua” izenekoa da. Lan mota bat da non ekintza desberdinak egiten diren segidan, hainbat kokagunetan. Era honetan landuz saio bakar batean jarduera desberdinak egitea lortzen dugu eta era berean, banan-banako lana izatea.

Antolaketa: Taldea ekipo desberdinetan banatzen da (5-6 lagun) eta bakoitzak leku bat izango du. Ekipo guztiak batera hasten dira lanean eta lana amaitzean itxoingo dute hurrengo lekura joateko. Lekuz aldatzerakoan atsedean txiki bat hartuko dute indar berritzeko. Irakasleak erabakiko du lekuz aldaketa hori nola egin; batzuk nahiago izaten dute azkar egitea edota lasterketa txiki bat eginez, beraz kasu hauetan ahalegina etengabekoa bihurtzen da.

B) Aukerako Heziketa Fisikoa

Heziketa aukerako edo agertzen ari den heziketa zuzentzen dituzten heziketa proiektu formal eta ofizialengandik desberdintzen den proposamen bat da; ondorioz, bere metodologiak askatasun gehiago eta parte hartze handiagoa bilatzen dituzten prozesuei erantzun beharko zien (Arrazola, Hevia, Risueño eta Sanz, 2003). Baita gizartean dauden talde desberdinen arazoekin harremana bilatuko da ere, ikasleengandik sortu daitezken bidegurutzetan barneratutako baliabideen bidez irtenbidea bilatu dezaten (Foley eta Pang, 2006). Alde berean, aukerakoa, pertsonak bere bizitzaren ezaguera eta praktika gehiago izateko egin behar duten lana kontuan izaten duelako.

Kontua da ikasleak formatzea bere garapen pertsonala zein bere komunitatearekin konpromisoa izateko; kontua da dinamika integratzailea sortzea; kontua da logika bat osatzea bai eskolako testuinguru formalean zein erabateko eskola-kanpoko testuinguruan; bai eta, bien konbinazioan (D'Angelo eta Zemanick, 2009).

Izan ere, heziketa aukerakoen kontzeptuak ez du oraindik definizio kontzeptual zehatza eta definitiboa; nahi izaten da eraikitzen joatea prozesuaren esperientzia praktikoaren bitartez. Hala ere, ikus daitezke oinarriko osagaiak heziketa aukerakoen, hala nola, metodologia dinamikoen abiaraztea, tekniko lanbideen prestakuntza aukera berrien eraikitze prozesuan eta sare solidarioen egituratzea bakarkako proiektuen aurretik (Ruzzi eta Kraemer, 2006).

Aukerakotasuna ere heziketa osoaren zentroan ulertzen da (Lehr eta Lange, 2003), hau da, bizitzarako, bizitzatik eta bizitzan ulertua (“bizi-kalitatea” zentroan); eta ez notak lortzeko heziketa bat, ez azterketak gainditzeko heziketa, ez tituluak lortzeko heziketa. Jarraian Espainia herrialdean bideratzen diren heziketa aukera ezberdinak azalduko dira:

6.6. *Waldorf* metodoa (Martín eta Jesús, 2014)

Waldorf metodoa hezkuntza sistema aukera ezagunetakoa da. *Waldorf* pedagogia Rudolf Steiner alemaniar filosofoak sortutakoa izan da. Pedagogia honek haur bakoitzaren garapena bilatzen du giro aske eta kooperatiboan, azterketarik gabe eta arteari eta eskulanei indarra handia emanez.

Stuttgarten (Alemanian) orain dela 90 urte inguru sortu ziren eskola mota hauek. Bertan Rudolf Steiner filosofoak zuzendu zuen lehenengo eskola askea eta bertako irakasleei prestakuntza eman zien. Pixkanaka bere metodoak bost kontinenteetako 80 herrialdetan ezartzen joan ziren. Espainian 1975 arte ez zen ezagutzen hasi; urte hartan guraso eta irakasle talde batek prestatu zuen lehenengo *Waldorf* Haur Hezkuntza, egun Micael Ikastetxe askea.

Metodo *Waldorf*-en gakoak: Familiaren parte hartzea eskolaren egunerokoan, irakaslearen etengabeko prestakuntza eta ikasle bakoitzaren heldutasun uneari arreta behartuen denbora eman ahal izateko, bere garapen prozesuetan. Espainiako *Waldorf* Hezkuntza Zentroen Elkartearen buruaren ustetan, hauek dira, *Waldorf* ikastetxeen hiru ezaugarri nagusiak (Aron, 2003):

- 1) Ume bakoitzak du bere bilakaera erritmoa: Helburu nagusia ume bakoitzak bere banakotasuna hedatzea dituen gaitasunen laguntzaz eta bere oztupoak gainditzeko bideratuz. Umearen garapen osoa izango da helburua bere ahalmena kontuan izanda eta horretarako lantzen da duen ezaguera zein bere familiarekin ere. Hemen helburu bat gehiago daukagu: umeak sumatzen duen koherentzia lortu dezaken onura handiena da. Bere bizitzan indarra eta iritziak edukitzea, bere burua autonomiaz eta solidario eran gidatzeko.
- 2) Hezkuntza etapa bakoitzeko tutore bakarra: Lehen Hezkuntzako sei urteetan irakastetxeak mantentzen du irakasle-tutore bakarra eta beste bat bigarren Hezkuntza eta batxilergoko beste sei urteetan. Helburua elkarbizitza egoki baterako loturak bermatzea da.
- 3) Arlo artistikoak: *Waldorf* pedagogiak bere programazioan curriculum ofizialaren arloez gain, baditu arlo artistikoak ere (musika, dantza, antzerkia, margo lanak eta antzekotasunak dituzten jarduerak) eta artisau lanarekin osatzen dira proiektu batzuetan material desberdinak erabiliz, hala nola, artile, haria, buztina, egurra, harria, kobrea eta hainbat material ezberdinak ere.

Saiatzen dira umearen pentsaeran gaitasunak garatzea, munduaren sentimenduan eta bere bizitzaren borondatean eta inizatiban heldua izaten denerako. Bestalde, hizkuntzak lantzen dituzte Lehen Hizkuntzako lehenengo mailatik hasita: ingelesa eta alemana. Espainian *Waldorf* ikastetxe bakarra dago hezkuntza maila guztiak ematen dituen, Batxilerreko bigarren maila barne, eta hau Las Rozaseko Micael ikastetxe askea da (Madril).

Waldorf metodoa heziketa fisikora zabaltzen denean, iraganeko gimnasia grekoko ideiak bultzatuz baliatzen da, non bere ustetan ariketa fisikoa moralari, arteari eta orokorrean hezkuntzako beste elementu eta baliabideekin lotura estua dauka. Ondorioz, ariketa fisikoa eta beraz hezkuntza fisikoa ere, grekoen “paieia”-ren zati garrantzitsu bat osatzen du (Silva Narváez, 2014). Horregatik ikasleak ariketa fisiko ezberdin barietate handia praktikatzen dute metodo honen barnean, adibidez: talde kirolak, atletismoa, espresio artistikoa, irudimenezko jokoak, zirkuan ageri diren ariketa fisikoak, eskalada, igeriketa eta hainbat jarduera fisiko ezberdin (Hernández, 2015).

Heziketa fisikoa eta *Waldorf* metodoaren gako garrantzitsu bat irakaslea ikasleekin sortzen eta mantentzen duen harreman estua da. Horregatik, malgutasun handia usten da klaseak emateko orduan, izan ere, irakaslea ikasleen behar ezberdinei buruz kontzientzia izanda, berak aukeratuko ditu moduak, baliabideak eta orokorrean klasearen dinamika heziketa integral bat bermatzeko bere ikasleei (Rodríguez, 2012).

6.7. Montessori metodoa (Obregón, 2006)

María Montessori izeneko doktoreak garatutako metodo pedagogiko aukera da eta bere oinarria 50 urtez gela barruan haurrek duten portaeraren behaketa izan da. Pedagogia honen aplikazioak bi lan nagusi dakartza, bai gurasoengan zein irakasleengan ere. Izan ere, ez dugu ahaztu behar eskolaren barruan eta kanpoan ikasten dela:

- 1) Lehenengo lana, umearen portaera behatzea da. Hau eginez ezagutuko dugu bere izaera psikikoa eta izaeraren oldarrak bere garapenean gidatuko dutenak. Hau guztia izan zen *Montessoriri* lagundu ziona umearen egiazko izaera aurkitzen. Bere ustez izaera horrek ordena eta diziplina maitatzen ditu; esanekotasun aktibo batera darama, eta ez mendekotasunera; maite du lan eraikitzailea eta besteekiko harreman egokiak izateko prestatzen du. *Montessoriren* ustez helduen aurre iritziek umearen portaera gaizki ulertzen dute. Helduen iritzien arabera interpretatzen dugu, eta ez da egokia.

Baita aurkitu zuen ere, behaketa zehatzaren bidez, umearen garapen psikikoan berriazko interesen aldiak egoten direla eta sentsibilitate handia eragingarri batzuentzat. Berak aldi sentsitiboak deitu zien eta frogatu zuen umearen eraikuntza psikikoa etena dela eta agertzen dela norberaren arabera. Eragingarri egokien bidez ume bakoitzak bere erara ikasten du (Bermúdez-Jaimes eta Mendoza-Páez, 2009).

- 2) Bigarren lanean gurasoek eta irakasleek prestatu eta eskainiko dituzte eragingarri egokiak umeak aukeratzeko behar duena bere barne oldarrek eskatuta. Aukeraketa egokia izateko umearen giroak bereziki prestatuta egon behar du eta horrela lortuko da bere egoera fisiko eta psikologikoaren garapena. Giro horretan eta bere barne oldarrek eskatutako jardueren aukeraketa gauzatuta, umeak bere irakaz metodoa jarraitzen du. Hori bai, beti ere helduaren begirada zuzena izanda, oztopoak baztertzen dituen eta jarduera egokien saila eskaintzen diona. Umeak helduarengandik espero duena da laguntza berak gauzak bakarrik egin ahal izateko, hori da *Montessorik* esaten duena.

Montessori ikastetxe baten gakoak: Adin desberdineko umeak gela berean elkartzeko dira: 1tik 3 urte arte; 3tik 6 urte arte; 6tik 9ra; 9tik 12ra eta jarraipen berdina jarraitzen du maila guztietan. Metodo horren arabera ikasleek jarraitzen dute bere ikaste erritmoa, eta duten abantaila da txikienek handiak imitatzen dituztela eta era berean, handienek txikiei laguntzen diete. Ziklo bat bukatzean helburuak lortu dituzten ikasleek hurrengo maila eta ziklora igarotzen dute.

Ikasteko aurkakoak: Ziklo bakoitzeko helburuak curriculum ofizialaren berdina dira. Hala ere, itxuran eta lan erritmoan betiko ikastetxeekin desberdintasunak dituzte: gela zatituta izaten da arloen arabera, txokoetan eta ikasleak edukiak lantzen ditu bere lan erritmoaren arabera eta bere metodoa jarraituz.

Espainiako *Montessori* ikastetxeak gero eta garrantzi handiagoa hartzen hari dira hezkuntzaren munduan. Egun bost ikastetxek aurrera eramaten dute *Montessorik* bere garaian bultzatutako metodoa. Jarraian ikastetxeen izenak eta topalekuak ipini dira ezaguera sakonago bat eskaintzeko helburuarekin:

- *International Montessori School* 1985 urtean sortua (Madrid).
- *The English Montessori School* 1973 urtean sortua (Aravaca, Madrid).
- *Montessori El Enebral* 1992 urtean sortua (Villalba, Madrid).
- *Colegio Montessori* 1958 urtean sortua (Zaragoza).
- *Montessori Palau* 1967 urtean sortua (Gerona).

Montessorirentzat jarduera fisikoa pertsonaren garapenaren eta hezkuntzaren zati da eta horrela azaltzen du bere metodo gidaren bederatzigarren kapituluan, heziketa muskular eta gimnastikoan zentratzen dena. Hiru zati ezberdinetan banatzen du soin hezkuntza: Gimnastika askea, gimnastika hezitzailea eta gimnastika muskularra. Apartatu txiki batean arnasketa ariketara zuzenduriko gimnastika ere aipatzen du. Jarraian heziketa fisikoa bermatzen duen esparru ezberdinak azalduko dira.

Montessorirentzat jarduera fisikoa pertsonaren garapenaren eta hezkuntzaren zati da eta horrela azaltzen du bere metodo gidaren bederatzigarren kapituluan, heziketa muskular eta gimnastikoan zentratzen dena (*Montessori* eta Blanco, 2003). Hiru zati ezberdinetan banatzen du soin hezkuntza: Gimnastika askea, gimnastika hezitzailea eta gimnastika muskularra. Apartatu txiki batean arnasketa ariketara zuzenduriko gimnastika ere aipatzen du. Jarraian heziketa fisikoa bermatzen duen esparru ezberdinak azalduko dira (Gómez, 2013):

- 1) Gimnastika askea: Bertan klasea bi zati ezberdinetan banatzen du. Lehenengoan sistema aerobiko kardiobaskularra sustatzen duten jokoak goraipatzen ditu musikaren erabilerarekin. Klaseko bigarren zatian aldiz, baliabide ezberdinen erabilpena azpimarratzen du (pilotak, aroak et.) beti ere, zuzendurik gabeko egoera eta testuinguruan.
- 2) Gimnastika muskularra: Bertan aparatuekin oinarritutako jarduera fisikoa sustatzen du, adibidez, tranpolina edo garaiko pendulua. Hala ere *Montessori* metodoaren ikusmoldeak esparru askean oinarritzen den ariketa fisikoa bultzatzen du, hala nola, txangoak, inguruko esparru publikoen erabilpenak eta baita testuinguru aske honek eskaintzen digun elementu eta baliabideak ere (parkeetako bankuak, zuhaitzak et.). Ariketa fisiko honetan txangoa alde zurririk prestatua eta gidatua izango da, jakinda bertako elementuen eta hauen erabileraren nolakotasun askea bermatzea helburu garrantzitsuenetakoa dela.
- 3) Gimnastika hezitzailea: Esparru honetan bi zati garrantzitsu lantzen ditu. Lehenengoan lurraren eta nekazaritza tekniken erabilerak dira munduaren elementu bizidunekin erlazioak pizteko helburutzat izanda. Beste aldetik elementu estimulagarri berriztatzaileak erabiltzen ditu errealitateko testuinguruko informazio jaso iturria sustatzeko. Adibide garbi bat musika tresnak izango ziren, bai klasikoak (saxofoia, gitarra, bateria eta bestelakoak) eta baita ere teknologiaren bidez garatutako instrumentu elektronikoen eta digitalak ere.
- 4) Arnasketara zuzenduriko gimnastika: Bertan yoga munduaren barneko ariketa espezifiko batzuei aipamena egiten da.

6.8. Kuman metodoa (González, Espinoza eta Jiménez, 2013)

Kuman japoniar matematikako irakasle batek garatutako ikaste metodoa da eta hori egin zuen bere semeak zailtasunak zituelako arlo horretan. Aurrerago, irakasle hori irakurketa lantzeko programak garatzen hasi zen, konturatu zelako hizkuntza eta ikaste gaitasunaren artean lotura handia dagoela. Sistema bi programa horien bidez osatuta dago, matematikakoa eta irakurketarena, ikasle bakoitzaren ikasteko asmoa baitute. Biak mailaka bananduta daude.

Adibidez, matematikari dagokionez, haur hezkuntzatik batxilerrera iraganeko edukiak agertzen dira: kontatzeko ariketatik eta lerroen marrazketatik kalkulu diferentzialeraino eta integrala edo estatistikoa. Helburua ikasleek gaitasunak eta lan ohiturak barnetatzea da beraien ikasketetan ahalik eta etekin gehien lortzeko asmoz. Diseinatuta dago ikasleek eskolaz kanpoko jarduera bezala praktikatzeko egunean ordu erdiz asteen bi bider eta gainontzeko egunetan etxean lantzeko (nahikoa izaten da egunero minutu gutxi batzuk).

Kuman metodoaren gakoan barnean, gurasoen inplikazioa eta parte hartzea gehien azpimarratu behar den alderdi bat da. Metodologiaren arrakastaren zati handi bat hiruki batean oinarritzen da eta erpin bakoitzean egongo lirateke ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Gurasoek bi lan nagusi dauzkate:

- 1) Bat, seme-alabek etxean egunero egiten dituzten ariketen kalifikazioa da. Oso denbora gutxi beharko dute horretarako, *Kumaneko* irakasleek zuzentzeko liburuak emango baitizkiete eta egunero minutu gutxi nahikoa izango da lan hori gauzatzeko.
- 2) Bigarren lana, seme-alabei etengabe motibatzea izango litzateke, egunero egiten duten lana baloratzeko.

Ume autodidaktak: Autodidakta izatea beste helburu bat da. Metodologia honen aldekoek pentsatzen dute hobe dela norbaiti “arrantzan erakustea” “arraina ematea” baino. Kuman metodoan garrantzitsuagoa da ikasleari tresnak ematea bere kabuz ikasi ahal izateko, zerbait erakustea baino. Filosofia honen helburua da ikasleek gaitasunak lortzea bere bizitza guztirako baliogarriak izan daitezen (Martín Manso, 2013). Gainera, ikasleak eskolaz gaindik dauden edukiak aurkitzen ditu, hau da, alde zurratik inork ez dizkion edukiak. Beraz, berarentzat erabat berriak diren lanen aurrean aurkitzen da eta hori, noski, oso esperientzi atsegina izaten da, oso betegarria.

Kuman metodologia lantzen duten ikastetxeak: Espainia osoan 201 ikastetxe daude, kasu batzuetan ikastetxearen barruan lantzen dute baina eskolaz kanpoko jardura moduan eta beste kasuetan ikastetxean bertan lantzen da bere curriculumean. Kumon metodoa heziketa fisikoaren esparruan aitzindaririk ez duen metodo bat da. Orain arte matematika eta irakurketara bakarrik zuzendua dago, horregatik kumon metodoa eskola ezberdinetan atxikitzen den metodo bat da. Ondorioz, kumon metodoa jarraitzen duen eskolak heziketa fisikoan beraiei zuzenduriko curriculumara jarraituko dute.

6.9. Doman metodoa (Andreu-Peñarrocha, 2013)

Gleun J. Domanek, iparramerikar medikuak, Giza Baliabidearen Garapenerako Institutuak sortu zituen. 50. Hamarkadaren bukaeran. Aldez aurretik, *Domanek* buru lesioak zeuzkaten zenbaitetan ezagutza trebetasun berdintsuak edo handiagoak ume osasuntsuak baino. Hau ikusita, pentsatu zuen akuilatze egoki batez ume horiek emaitza hain onak lortzen bazituzten orduan ume osasuntsuen ikaste gaitasuna alferrik galtzen ari zirela.

Domanek mundu osoan ikerketa lanak egin zituen umeekin eta egiaztatu zuen txikiei irakurtzen erakusteko aukerak bazeudela. Berarentzat silaben bitartez erakustea ez da metodo egokiena, eta bere ustez ume txikiek ahal dituzte ezagutu hizki eta hitzak nahiko handiak badira, eta hiru urte baino lehen ahal dela irakurtzen ikasi.

Domanek uste du zenbat eta ume bat txikiagoa izan orduan eta ikasteko erraztasun handiagoa duela, batez ere lehenengo 6 urteetan (aldi honi berak deritzo *jenioaren sorkuntza*) ikasteko gaitasun hori aurrerago izango duena baino handiagoa dela uste du berak. *Domanen* ustez umeak gai dira hitzak irakurtzeko urte bat dutenean, esaldiak bi urteekin, eta liburuak hiru urte izatean. Eta esaten du gustuko gauza dela haurrentzat. Baita dio ere irakurtzen ikasteko prozedura eta hitz egiten ikastekoa oso berdintsuak direla. Azkenik, *Domanek* dio, irakurketa goiztiarrak irakurtzeko gustua dakar, adimenaren garapena errazten du eta umeari irekitzen dio aukera handiago baten mundua (Vergara Díaz, Martínez Galán, Martínez-Sahuquillo Amuedo eta Echevarría Ruiz de Vargas, 2011).

Doman metodoaren prozedura sistema (Ontoria González, 2015): Diseinatuta dago aita edo ama umearekin praktikatzeko, umearen ezaugarri eta beharrei egokituta eta umearentzat erraza eta dibertigarria izateko. Ez da zerbait zurruna baizik eta malgua da, hau da, aldaketak onartzen ditu. Umeari erakusten zaizkio 5 txartelen serieak hitzekin, hizki handiz idatzita eta sail berdinekoak (adibidez: giza gorputzaren zatiak, margoak, animaliak eta bestelakoak) oso modu azkarrean, egunean hiru aldiz. Jolas baten moduan egin behar da eta umeari hitza irakurri pozik, ozenki eta ondo ahoskatuz; pixkanaka sail berriak erantzen joango dira (bost hitzekin beti). Beste fase batzuetan, eta baita hitz handiz idatzita baina tamaina pixka bat txikiagoan, erakusten zaizkio bi hitzez osatutako txartelak, esaldi motz eta errazak, esaldi pixka bat luzeagoak eta azkenik interesgarriak egingo zaizkion ipuinak (orrialde bakoitzean esaldi bakar bat eta testua marrazkietatik bananduta).

Doman metodoa lehenago aipatu bezala lehen urteetan aplikatzen den metodoa da. Beraz, heziketa fisiko goiztiarra bezala ezagutzen da eta bertan hiru esparru garrantzitsu ezberdin ditzakegu: lehen esparrua mugikortasun konpetentzian oinarritzen da; bigarrena esparrua eskuzko konpetentzietan eta azkenik hirugarren esparrua orekako programa aktiboak osatzen du. *Domanen* heziketa fisikoko metodoak gaitasun fisikoen potentziala ahalik eta gehien sustatzea da umearen potentzial fisiko handiena garatzeko helburuan oinarritua.

- 1) Mugikortasun konpetentziak: Aldekideko hiru funtzioak osatzen dute (lasterketa, lau hanketan eta arrastea). Hiru funtzio hauen helburua umearen lateralitatea lantzea da, ondorioz azkarrago eta seguruago mugitzeko gaitasuna sustatuz.
 - a. Lasterketa: Umearentzat oso dibertigarria eta estimulagarria da lasterketan ibiltzea abiadura sentsazioarengatik. Horregatik *Doman* metodoak maldan beerako lasterketa laburrak gomendatzen ditu. Aurrerago eskailerak eta saltoak erabiltzeko aipamena egiten du, umearen bizkortasunean emaitza positiboak bultzatzeko.

- b. Lau hanketan: Umearengan garapenean aberastasun handiena bermatzen dion jarduera fisikoa da *Domanen* ustetan. Adituak gomendatzen du 20 metrotako ibilbidea non umeak patroiz ezberdinekin gainditu beharko duen (ezker besoa eta hanka; ezker besoa eta eskuin hanka; bi besoak lehenengo et.).
- c. Arrastea: Gomendatzen den jarduera 20 metrotako arraste lasterketa bat da.

Lasterketa, lau hanketan eta arrastea burutzearen onurak hainbat dira, hala nola, indarra eta bizkortasuna garatzea, arnas sistemaren eraginkortasuna hobetzea, koordinazioaren sustapena, bat-egite okularra, abiadura handitzea, erabakien eta lateralitatearen domeinu nagusiagoa, erresistentzia eta garun azalaren lantzea.

- 2) Eskuzko konpetentziak: Funtzio honen asmoa goi trebetasunerako prestatzen hastea da. Adibidez idazten ikastea. Umea bere izena idazten hasi daiteke eta hobetzen doan heinean testu laburrak kopiatzen. Jarduera fisiko honen onurak ere oso garrantzitsuak dira, halaber, ikusmena eta mugimenduaren koordinazioa, baina garrantzitsuena gorputz eskemaren pertzepzio goiztiarra da.
- 3) Orekako programa aktiboak: Apartatu honetan oreka lantzeko programa aktibo baten beharra azpimarratzen du elementu ezberdinekin landuta. Hala ere, teknologia berrien erabilera gomendatzen du zailtasun handiagoko ariketa fisikoak planteatzeko momentuan. Gaur egun adibiderik garbiena, *slackline* izeneko jarduera fisikoa izango zen.

C) Faktore bereizgarriak

Neska, mutil eta nerabeen jarduera fisikoa zein kirola, eta baita praktika horrekin lotura duen bizi estilara baldintzatuta daude eskola inguruan aurki ditzaketen aukerengatik, bai hezkuntza fisikoko eskoletan bai curriculumaren jarduera fisikotik kanpo ematen diren beste egoeretan ere (Pill, 2008). Ideia honen eraginez, azken urtetan, eta estatuko, erkidegoko eta herriko zenbait administrazioetatik bultzatzen ari dira jarduera batzuk aipatutako aukerak bermatzeko. Modu honetan *Goi Mailako Kirol Kontseiluak* 2009an sortzen du A+D Plangintza, eta aurrerago, proposatzen du eskola mailan kirol eta Jarduera fisikoko Nazio Markoa, orientabideak finkatzeko kirol eta jarduera fisikoko ordenazioan eta hobekuntzan.

Jarduera fisikoa ohiko praktika eta sistematikoa izan behar du pertsona guztien bizitzan, adina, sexua, giza baldintza edota lanbidea kontuan hartu gabe, dituen onurengatik (Lehr eta Lange, 2003). Horregatik esan dezakegu heziketa fisikoak eskaintzen dizkigun tresnek lagunduko digutela bizi garen giza taldean gure betebeharrak kalitate handiagoarekin aurrera eramanez izateko.

Jarduera fisikoan aritzen garenean gure gorputzarengan eragina izaten da eta baita gure izaera osoan, bai kimiko mailan, energetikoan, emozionalean, intelektualean, ... Onura hauek gaur egun onartuta daude eta kirol medikuntzan egindako ikerketan berrmatuta (Monachesi, 2010).

Jarduera fisikoa gure biziraupenerako ezinbestekoa dela begien bistakoa da. Garapen motorrean gertatzen diren aldaketak denboran zehar islatzen dute giza gorputza eta ingurumenaren arteko lotura. Hau giza garapenaren prozesu orokorraren zati bat da (Cuñado eta de Gracia, 2012). Jarraian, Heziketa metodologiak aztertzeko faktore bereizgarriak aipatuko dira, ondorioz metodologia ezberdinen konparaketara bideratuz (Herrera, 2001):

1-Ikaste mota

Lehenengo elementu hau erabiliko dugu aztertzeko ea aplikatu dugun teoria irakaste eta ikaste prozesuaren diseinuan ikaste garapenaren behe mailetan edo goi mailetan oinarritzen den. Jarraian aipatutako taulan mailakatzea aztertzeko kontzeptuak ipini ditugu. Alde batetik, buruzko ikasketak eta teknikak, non, memoria lantzen den gehienbat eta bestetik erlazioak eta teknika orokorrak. Azken hauek pentsamendua eta arrazonamendua gehienbat lantzen duten ildoak jorratzen dituztenak dira. Jarraian 8 taulan aipatutako ikaste mota ezberdinen sintetizazioa aipatzen da.

8 Taula. Ikaste mota sintetizatua


Ikaste mota sintetizatua	
Buruz ikasi	Teknikak ezarri
Erlazioak ulertu	Teknika orokorrak ezarri

Ikaste mota faktore bereizgarrian gehiago sakontzeko eta zehazteko helburuarekin, metodologiaren bide zidor zehatza edo malgua jorratzen dituzten metodoak sailkatzeko faktoreak jarraian deskribatu dira:

- 1) Globala: Ikaslearengan zeregina duten irakaslearen jokaera guztiak kontuan izaten dira.
- 2) Zehatza: Eredu bakoitzaren ezaugarriak definitzen dituena.
- 3) Osoa: Errealitatean dauden eredu guztiak definitzen dituena.

2-Ikaste kontrola

Puntu honen definizioak hainbat erabaki zehaztu dezake ikaste prozesua ikastea norengan eta nola kontrolatu behar den, hau da, ikaslearen edo irakaslearengan zentratua. Baloratu behar da bai irakasle zein ikaslearen parte hartze maila erabaki ezberdinak biltzen dituen multzoan, hala nola, helburuak zehazterakoan, edukiak aukeratzekoan, erabiliko diren baliabideak eta laguntzak, jardueren segida eta ebaluazioa. Jarraian 3 irudian zenbategotasunaren metafora bat ageri da.




Ikaste kontrola faktore bereizgarrian sakontasun handiagoa eskaintzeko erabakiarekin, irakasle ezberdinen perfilak sailkatu dira kontrol mailaren arabera. Jarraian aipatutako guztia modu eskematikoan azaltzen da:

- 1) Autokratiko eredua: Irakasleek erabakitzen dituzte bete behar diren jarduera edo ekintzak zeintzuk izango diren, nola antolatuko eta banatuko diren, beti ere taldetik distantzi batera eta banakako ebaluazioa egiten.
- 2) Eredu demokratikoa: Irakasleek planifikatzen dute taldekoekin adostuta, ikasleak bultzatzen dituzte gauzak eztabaidatzen, erabakiak hartzen, programatzen eta jarduerak banatzen; horretarako hainbat prozedura iradokitzen dituzte. Irakaslea taldearen parte izaten da eta emaitzak taldean oinarrituta ebaluatzen dira.
- 3) *Laissez-faire* deituriko eredua: Orokorrean irakasle hauek ez dute parte hartzen. Ikasleek eramaten dute lana aurrera bera bazterrean egonda. Soilik irakaslearen iritzia beharrezkoa denean bere aholkua emango du.

3-Ikastearen norabidea

Ikaste-ikaste prozesuaren diseinua erabakitzeko bi ardatz nagusi kontuan izan behar dira. Bi horietako lehenengoan, ikastea noraino orientatuta izango den jarduera edo gaiaren bitartez. Eta, bigarrenean, diseinua zehaztuko den berriazko esparru batean edo diziplina anitz batean. Jarraian 4 irudian aipatutako ikastearen norabide ezberdinen nolakotasuna ageri da.

4 Irudia. Ikastearen norabideak sintetizatuak



Bi ardatz hauen inguruko profila sailkatua izan da alderaketa zehatz bat bultzatzeko helburuarekin. Hiru profil ezberdin aukeratuak izan dira faktore bereizgarri honen zehaztasun lana errazteko momentuan:

- 1) Instrumentala: Irakasleek erakusten dute irakaste helburuak kontuan hartuz, eta autoritatea eta zuzentze lana oinarritzat hartzen dira.

- 2) Adierazpen eredu: Irakasleen behar afektiboak betetzen oinarrituta; irakasleak duen kezka nagusia ikaslearen errendimendua eta giza harremanetan finkatzen da.
- 3) Adierazpen instrumental eredu: Bi ereduaren nahasketa bat da. Irakasle hauek izaten dute, alde batetik, interesa irakaskuntzan eta, bestetik, ikaslearen beharretan.

4-Ikasteko taldekatzea

Ikaste eredu edo teoria desberdinak bereizteko erabili daitekeen beste elementu bat ikaslearen taldekatzea da, hau da, bakarkako lana egin edo taldekako lana. Kasu honetan beharrezkoa izango da aztertzea gehienetan bakarkako lana egingo den, talde txikietan edo ertainetan garatuko diren proposatutako jarduerak, edota gehienetan taldekako lana egingo den (baita adina eta sexuaren arteko ezberdintasunak ere). Ondoren, 9 taulan, taldekatze mota ezberdinak aztertze ereduak ipintzen da.

9 Taula. Taldekatze mota ezberdinak

Taldekatzeko mota ezberdinak			
Bakarka	Bikoteka	Talde txikiak (3-7)	Talde handiak (+7)
Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak eta gizonezkoak	
Adin berekoak	Adin ezberdinetakoak		

5-Ikasteko eragin-trukeak

Ikaste prozesuaren zehar aurkitu daitezkeen eragin-trukeak definitzen dira puntu honetan. Kasu batzuetan irakasle-ikaslearen arteko harremana soilik aipatzen da, nahiz eta beste harreman motak aurkitu ahal izan. Ondoren, 10 taulan, giza harremanak eta testuinguruko harremanak jorratzen dituen taula azaltzen da.

10 Taula. Giza harreman sare ezberdinak

Giza harremanak	Giza harremanak ez direnak
1) Irakasle-ikasle	1) Ikasle-lanabesak
2) Ikasle-ikasle	2) Ikasle-informazioa
3) Bestelakoak	3) Ikasle-ingurua-testuingurua
	4) Bestelakoak

Jarraian giza harremanak eta giza harremanak ez diren ikuspegi ezberdinak mailakatuta ezarriko dira, funtzio, maila, joera eta forma ezberdinen arabera. Oso garrantzitsua da aipatzea harreman sare ezberdinen nolakotasuna irakaslearen gain dagoela eta horregatik ondorengo ikuspegiaren egitea.

a) Ereduen sailkapena funtzioaren arabera

Legegintza eredia

-Irakasleei gustatzen zaie eskolako ekintza eta arazoak sortzea, adieraztea eta planifikatzea.

-Irakasleek gustura dute arauak diseinatzea eta ikasleak bultzatzen dute arazoak sortzeko eta sormenaren bidez konponbideak aurkitzeko.

-Ekintza sortzaile eta eraikitzaileetan interesa dute.

-Adimenaren “meta osagarriak” zorrotasunez erabiltzen dituzte.

-Nahiago dituzte egituratu gabeko arazo eta jarduerak.

Eredu betearazlea

- Irakasleei gustatzen zaie esaten zaiena betetzea, arauen arabera; ezagutzen dituzten prozedurak erabiltzea eta nahiago izaten dute zereginak betearazi antolaketa on batekin. Ez zaie gustatzen bat-bateko lanak egitea.

-Erakusteko erabiltzen duten estrategia “ikasgai-azalpen” erakoa izaten da, bertan ez dago tokirik berrikuntzarako. Ikaslearengan bultzatzen da ezaguera eta transferentziaren jabetza prozesuen erabilera, hau da, kodifikazio, konbinazio eta konparazio selektiboen prozedurak.

Epailearen eredia

- Kasu honetan irakasleak kezka handia izaten du kontrolatzeko, ebaluatzeko eta gainbegiratzeko eskola jarduera guztia.

- Pertsona hauei asko gustatzen zaie analizatzea eta kritikatzeta; aukeratzen dituzten arazoak aproposak dira egitura ebaluatzeko eta dauden ideien edukia ere.

b) Mailaren araberako eredu en sailkapena

Eredu orokorra

- Irakasleak nahiago du kontu zabal eta abstraktuak direnak lantzea.
- Ideien munduan lan egitea gustukoa dute.
- Arriskua, batzuetan, izaten da abstrakzioaren erruz "basoa" ikustea eta "zuhaitza" ez.

Tokiko ereduak

- Irakasleek nahiago izaten dituzte arazo zehatzak dituzten eginbeharrak, eta lan zehatza eskatzen dutenak ere. Zehaztasun asko duten jarduerak aukeratzen dituzte.
- Eredu honetako irakaslearen joera praktikotasunaren hurbilketa izaten da.

c) Eredu en sailkapena dituzten joeren arabera

Eredu liberala

- Irakasle hauek dauden prozedura eta arauetatik haratago joan nahi izaten dute; aldaketak sustatu eta bitarako egoerak onartzen dituzte.
- Bizitzan eta lanean berritze maila bat nahiago izaten dute. Esan daiteke arazodun egoerak gustuko dituztela, arrisku bat dutenak eta gutxitan erabiltzen diren prozedurak erabiltzea eskatzen dutenak konponbide bat bilatzeko.

Eredu kontserbadorea

- Arauak jarraitzea gustukoa dute eta eraturako prozedurak. Aldaketak gutxitzen dituzte eta bitarako egoerak baztertzen dituzte ahal izaten duten guztietan, bizitzan eta lanean.

d) Ereduen sailkapena dituzten formaren arabera

Eredu monarkikoa

- Irakasleak ideia finkoak izaten ditu, gehienetan gutxi baina oso errotuta, aldaketarako zailtasunarekin, eta ideia horiek lehentasuna dute bigarren mailakotzat hartzen dituen beste batzuen aurrean.
- Iraunkortasunez jarraitzen du bere ideia, beste aukerak kontuan hartu gabe.
- Lan erritmo hau inposatzen du eta era positiboan baloratzen ditu ondo erantzuten dutenak (era horretan lan egiten duten ikasleak).

Eredu hierarkikoa

- Irakasleak aurrera eramango dituen jarduerak planifikatzen ditu, segida logiko eta egituratua ordenatuta, eta denen artean lotura bat eratuz.
- Ikasle eta hauek egiten dituzten jarduera eta ekintzen artean segida logikoa eta ordenatua bilatzen du, horrela lan egiten dutenak baloratuz.

Eredu oligarkikoa


- Ideia eta iradokizunen oparotasuna, zabaltasuna eta aberastasunari lehentasuna ematen die, eta ez azalpen oso egituratuta izateari.
- Lanei iradokizun asko ematen die, eta horren arabera lana egiten duten ikasleak baloratzen ditu.
- Askotan ikasleen artean "ideien ekaitza" erabiltzen du bere saioen hasieran, era horretan, ikasleek esan dezakete gai bati buruz bururatzen zaien guztia. Dena onartzen da, ideia bat bada.

Eredu anarkikoa

